

51. artikulua: Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak

51. 1 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailatik gorako ikasleek (4.DBH, Batxilergoa, Heziketa zikloak) eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira jokabide desegokitzat, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat, edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko. Eta horiei erantzuteko ez da neurri zuzentzailerik ezarriko, betiere biltzeko eskubidea baliatuta hartu badira eta alde zuzentzeko Zuzendaritzari jakinarazi bazaizkio, ikastetxeak ezarrita dituen arauak jarraiki.

51. 2 Eskubide hau gauzatzeko honako atal hauetan ezarritakoa aintzat hartuko da:

a) Ikasleak artikuluan honetan eta aurrekoan adierazitako eskubideak betetzeko eskola-eremutik ateratzekoak badira, gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, baldin eta adinez txiki badira.

4.DBH	Batxilergoa eta Heziketa Zikloak
Idazki horretan, ikastetxetik ateratzeko baimena zer ordutan ematea eskatzen den adierazi beharko da, hala badagokio, erantzukizun zibilak zehazteko.	Derrigorrezkoen ondorengo hezkuntzetako adinez txikiko ikasleen kasuan, gurasoen edo legezko ordezkarien idazki bidezko baimen orokorrekina nahikoa izango da.

Beraz, gurasoek edo legezko ordezkariak erabakiko dute beraien seme-alabek eskubide hau gauzatzeko ahalmena izango duten ala ez. Betiere erabaki hau ez da behin-betikoa izango eta posible izango da aldatzea ikastetxea jakinaren gainean jarri eta gero.

b) Eskolara ez joateko proposamena dagokien taldeetako ordezkarien Batzarrak onartu behar du, bai ordezkariak beraiek aurre hartuta bai ikasleek horrela eskatuta. Eskararak egiteko alde zuzentzeko besteak beste hurrengo gaiak eztabaidatu behar dira:

- Deialdiaren helburua eta egokitasuna.
- Deialdiaren eta ikastetxearen arteko harremana.
- Ikasleek aztertzearen denbora.
- Aurreko deialdiekiko hurbiltasuna edota aurreikusten direnak.

Geldialdi akademikoei buruzko Ordezkarien Batzarrak jolas-orduetan egingo dira.

c) Ordezkarien Batzarrak proposamena onartuz gero, deia idatziko da artikuluan horren atalean agertutako gaien arabera arrazoitua eta bertan azalduko dira deitzaileak, datak, orduak eta antolatutako ekintzak. Deialdia, gutxienez 2 egun lehenago egingo da.

Deialdi ezberdinak egingo dituzte 4.DBH, Batxilergo eta Heziketa Zikloetako ikasleek.

Idatzi honek bete behar dituen zehaztapenak:

- Deialdia egiten duen erakundea.
- Deialdiak ikastetxearekin duen lotura.
- Arrazoiak eta geldituaren denbora.
- Proposatutako ekintzak.

Gerta daiteke geldialdi proposamena egun bat baino gehiagokoa izatea. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan honek izan dezakeen eraginagatik, aurretik esandakoaz gain, artikuluan honen azken atalean deskribatzen diren baldintzak bete beharko dira (kontsultatu q) atala):

d) Horrela idatzitako deialdia ikastetxearen Zuzendaritzari jakinaraziko zaio eta 52.artikuluan ezarritakoaren arabera, horretarako zehaztuta dauden guneetan jarriko da. Guneotan ikusgai izango da bozketak amaitu arte, gutxienez.

e) Zuzendaritzak, bozketak egiteko eskola ordua zehaztuko du (kontuan izan behar da adin txikiko ikasleen gurasoei baimena eskatu behar zaiela, beraz proposamena jasotzen denetik egun bateko tartea beharko litzateke 4.DBHko ikasleen kasuan).

Zuzendaritzak zehazten duen eskola-orduan ordezkariak euren taldeko ikasleei jakinaraziko diete deialdia dagoela eta horren gaineko informazioa emango diete. Ondoren, isilpeko bozketaren bidez onartu ala baztertu egingo dute. Adin txikiko ikasleen kasuan, bozketak honetan gurasoen edo legezko ordezkarien eskola ez etortzeari buruzko baimena duten ikasleek besterik ez dute parte hartuko.

f) Taldeek dagokien eskolaren lehen edo azken 10 minutu izango dute informatu, eztabaidatu eta bozkatzeko.

g) Tutore legalen baimena duten edo/eta adinez nagusi diren ikasleen bozketak idatzizko eta isilpeko botoen bidez izango dira, horrela izan ezean ez dira onartuko.

Erabiliko diren boto-txarteletan, (BAI) eta (EZ) aukerak azalduko dira, bakoitza laukitxo batean. Hautesleek bi aukeretako baten alde egin beharko dute. Hartara, beraiek hautaturiko aukeraren laukitxoan ixa bat egin beharko dute tintaz edo bolalumaz.

Hona hemen ager daitezkeen jarrerak eta euren interpretazioak:

- Abstentzia / Desbinkulazioa. Ez du parte hartzen bozketan, eta, beraz, klasean geratu behar da
- Baiezko botoak. Bozkatutako proposamenaren aldekoak.
- Ezezko botoak. Bozkatutako proposamenaren aurkakoak.
- Zuriak. Markadun laukitxorik ez duten botoak. Ez dute iritzirik adierazten, baina emaitza onartzen dute.
- Baliogabeak. Testua ez dator bat bozkatutako proposamenarekin. Bi laukitxoetan marka bana duten boto-txartelak baliogabeak izango dira, baita norberak bete ez duen botoa edo beste modu batera betetako botoa ere.

h) Bozketa amaitutakoan, ordezkariak zenbatuko dituzte botoak eta akta irakurriko dute, besteak beste hurrengo datuak jasoz:

- Bileraren ordua eta lekua.
- Egondako ikasle-kopurua.
- Aurkeztutako proposamena edo proposamenak (ekintzak).
- Bozketaren emaitza.

i) Ikastetxearen Zuzendaritzak akta-ereduak emango dizkie ordezkariak.

j) Ordezkariak berehala helaraziko dizkiote aktak Zuzendaritzari: beti ere artikulua honen b) atalean ezartzen diren epeak errespetatuz.

k) Aktak jasotakoan, Zuzendaritzak bozketaren emaitzak jakinaraziko ditu.

l) Geldialdi akademikoa onartuko da bozketan parte hartzeko eskubidea duten ikasleen gehiengo absolutua (ikasleen erdia gehi bat) aldekoa bada.

m) Bozketaren unean, hainbat ikasle ekintza osagarriak edo eskolaz kanpoko ekintzak egiten ikastetxetik kanpo egonez gero, gehiengo absolututzat joko da ikastetxean dauden ikasleen erdiak gehi bat. Ekintza hauek egiten diharduten ikasleen bozketa aurreikusi beharko da, kasu bakoitza aztertuz.

n) Gurasoen edo legezko ordezkarien eskola ez etortzeari buruzko baimena duten eta geldialdian parte hartuko duten ikasleek ikastetxetik alde egingo dute geldialdia amaitu arte. Geldialdian ez dauden ikasleek eskolak izango dituzte eta zentroak hartuko du horren ardura. Ikastetxeak eskolak emango ditu, agertzen ez den ikasle kopurua edozein izanda ere. **Ez bertaratutako orduak hutsegite justifikatu bezala kontatuko dira.**

o) Ikasleak, artikulua honetan araututakoaren arabera, eskolara joaten ez direnean, informazio gisa eta idatziz emango zaie horren berri senitarteei edota adingabeko ikasleen legezko ordezkariak. Eskubide hau dela-eta eskolara ez bertaratzeak ez du inoiz diziplinazko ondoriozko izango.

p) Irakasleak ez daude behartuta geldialdi denborari dagokion programaren zatia errepikatzerara (nahiz eta azterketa bat izan).

q) Gerta daiteke geldialdi proposamena egun bat baino gehiagokoa izatea. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan honek izan dezakeen eraginagatik, aurretik esandakoaz gain, baldintza hauek bete beharko dira::

- Deialdia, gutxienez 7 egun lehenago egingo da.
- Bozketan parte hartutako ikasleek, geldialdiak irauten duen egunetan zenbait ekintza eramango beharko dituzte aurrera (gutxienez 2 ekintza eguneko). Ekintza horien zerrenda Ikasketa Buruari aurkeztuko diote: data, ordua, tokia eta partehartzaileak zehaztuz. Ikasle bakoitzak eguneko ekintza batean parte hartu beharko du gutxienez.
- Informazio hau (deialdia eta antolatutako ekintzak) Batzorde Pedagogikoan aztertuko da. Deialdia egin deneko garaia, ikasmila eta deialdiak eragin ditzakeen kalteak ere aztertuko dira. Egun bat baino gehiagoko geldialdiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan izan dezakeen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartuko dira. Neurri horien berri irakasle eta ikasleei emango zaie bozketa egin aurretik.
- Geldialdia egiten bada, ikasleek egindako ekintzetako partehartzearen txostena eman beharko diote Ikasketa buruari, ekintzaren egun berean. Ekintza bakoitzeko orrialde bat idatziko dute, bertan zehaztuko dira:
 - Data.
 - Ordua.
 - Tokia.
 - Partehartzaileak.
 - Partehartzaileen sinadurak.
- Ikasle batek eguneko ekintzetan parte hartzen ez badu, hutsegite ez justifikatu bezala kontatuko dira egun horretako orduak.

<http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2008/12/0806986a.pdf>